

Gure robota itsuentzat dago diseinatuta eta ondorioz pertsona horiek osatzen dute gure merkatua. Itsuak egunerokotasunean zailtasun ugari dituzten pertsonak dira. Hala nola, kalean autonomia osoz mugitzeko zailtasunak; semaforoak, kalearen erdian dauden oztopoak, haien helmugara ailegatzeko zailtasunak. 2012an 979.200 pertsona itsu zeuden Espainian, eta 2019.urtean 72.035 pertsona itsu zeuden.

Horregatik erabaki dugu, IM//AG enpresa sortzea, zailtasun horiek era erraz batean murrizteko. OMEren arabera, urtean batez beste milioi eta erdi itsutasun kasu berri agertzen dira, nahiz eta horietako % 80 ekidingarriak eta tratatzeko modukoak izan. Prebentzio lana modu egokian eginez gero, askoz ere ikusmen arazo gutxiago sortuko lirateke munduko herrialderik behartsuenetan.

Ikusteko ahalmena duten pertsonak ez dira konturatzen egunero egiten dituzten gauzak haientzako errazak direla baina itsuen kasuan zailtasunak dituzte eta beste pertsona baten menpe egon behar dira.

Produktuaren merkatua oso konkretua da eta ez dago publiko orokor batentzat diseinatuta. Robota, hasiera batean, Espainian merkaturatuko da, baina arrakasta handia izanez gero, beste herrialde batzuetara zabaltzeko aukera dago. Esan genezake, beraz, autonomia behar duen edozien itsurentzat bideratutako produktua dela.